

Gure taldearen irabazi iturriei dagokionez, honelako diru sarrerak aurreikusten ditugu. Alde batetik, harpidetza edo prima izango genezake, non bertako bazkideek ekintzetan parte hartzeko hileko ordainketa bat egin beharko duten. Hala ere, horrekin batera, ez-ohiko ekintzak ere burutuko ditugu eta ekintza horietan parte hartzeko bestelako diru kantitate bat ordaindu beharko da. Honen arrazoia zera izango litzateke: ekintzak hauek, kasu askotan, beste pertsona edo elkarte batek gidatua izango da, gastu handiagoak izanik; eta, bestetik, guk gidatua bada ere, ekintza berezia izango denez, gastu altuago bat suposatuko du.

Oinarrizko harpidetza hilean 60 eurokoa izango da, hileko lehenengo astelehenean egin beharko dena diru transferentzia baten bitartez. Aitzitik, ez-ohiko ekintzetan parte hartzeko, ekintza baino aste bat arinago ordaindu beharko dute. Ekintzaren arabera, prezioa 10-20 € bitartekoa izango da. Ez-ohiko ekintza horien artean ondorengoak aurkituko ditugu:

Ekintzak	Ordaindu beharrekoa (€tan)
Taxidermia	10
Macrame	15
Saskibaloia	10
Sella Jaitsiera	20

Aisialdirako ekintza gehienak guk garatuko ditugu, alde batetik, gure nahia hori delako eta, bestetik, honek kostuak merketu egiten baititu. Hala ere, batzuetan beste elkarte edo enpresen esku utziko ditugu ekintzak, hala nola, Sellaren Jaitsiera, eta kasu horretan, ekintzaren prezioa ere garestiagoa izango da.

Gure irabazi iturrien aurre ikusketa bat planteatuz gero, honelako emaitzak lortuko genitzake:

- 50 partaide badira,
 - $50 \text{ partaide} * 60\text{eur} = 3000\text{euro}$
- Eta, hilean ez ohiko ekintza bat burutzen badugu, ekintza horretan partaideen %50 parte hartuz:
 - $25 \text{ partaide} * 15\text{eur} = 375\text{euro}$

Beraz, datuak ikusirik, gure irabazi iturriak 3375 eurokoak izango lirateke, egoera kaskar batean kokatzen gaituena, irabazi iturri haueri enpresaren kostuak kendu behar baitzaizkio. Hori dela eta, bestelako diru iturriak bereganatu behar ditugu.

Bestelako irabazi iturri horien artean Gobernuak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituen diru laguntzak aprobetxatzea izango zen aproposena. Entitate hauek mota anitzeko subsentzioak ematen dituzte eta gure kasuan hori aprobetxa genezake, posizio egokian baikaude: alde batetik, aisialdia, gazteria eta denbora libreko talde bat baikara; eta bestetik, aniztasun funtzionala duten pertsona ugari osatuko baitute gure elkarteak.

Entitate hauek ematen dituzten diru laguntzak gazteria eta aisialdiarekin harremanduak izan ohi dira, baita, aniztasun funtzionala duten pertsonak osatzen duten elkarteeri. Ondorioz, diru laguntza horiek bereganatzea funtsezkoa izango litzateke, gure enpresaren iraupenean pisu handia izango lukeelako.

Azkenik, irabazi iturri bezala ere gure tailerretan egingo ditugun materialen salmenta izango dugu, diru kantitate jakin bat irabazten lagunduko gaituena. Beraz, laburtuz, esan genezake gure enpresaren irabazi iturriak hauek laurak izango liratekela, hau da, harpidetza, ez-ohiko ekintzetarako dirua, Estatu zein Gobernuaren diru laguntzak eta eginiko materialen salmenta.